

ek!

eta kitto!
euskarako elkarteak

2025eko komertzio
eta zerbitzuen gida

EIBARKO
ELKARTE
GASTRONOMIKOAK



Esperientzia eta berrikuntza komunitateen kudeaketarako



JABETZA HORIZONTALEAN **ADITUAK GARA**
ETA ZERBITZU BERRIZTUA ESKEINTZEN DUGU.

fikom

Finkak + Komunitateak
& Inmó

fikom.eus
943 20 40 77

arat.

HORTZ KLINIKA · CLÍNICA DENTAL

Leku berria,
irribarre bera.

Teknologia hobe,
konfiantza bera.

Toribio Etxebarria Kalea, 4 Behea
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com



@arat_klinika



2025eko GIDA
Eibarko enpresa,
zerbitzu, komertzio,
tabernak...

83

5

Eibarko elkarte gastronomikoak

eta kitto!
euskara elkartea

Argitaratzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea **Argitaratze-data:** 2024ko abendua

Publizitatea: Ane Lizarralde, Belen Ulazia **Diseinua eta maketazioa:** Ana Aizpurua, JL Gorostegi

Azala: Jose Antonio Azpilikueta **Administrazioa:** Marisol Uriarte

Inprimategia: GERTU **Lege Gordailua:** SS-01351-2019

@etakitto

@gaztekitto



Laguntzaileak:



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Belaunaldi berri bat

1996ko ekainean kaleratutako “Eibarko Elkarte Gastronomikoak” publikazioaren arrastoan, ordutik 28 urte pasa direnean, ...eta kitto!-k berriro eutsi dio erronkari eta gure herriko elkarte horien gaur egungo egoera islatu nahi izan du esku artean duzuen publikazio berri honetan. Eibarko elkarte gehienak XX. mendeko 70. hamarkadaren bueltan sortu ziren, eta orduan kaleratutako lehenengoko publikazioan sortzaileetako askoren testigantzat jaso genituen: bazkideen izenak eta soziedade bakoitzaren errezetak agertzen ziren bertan. Gaur egungo egoera oso bestelakoa da: XXI. mendeko lehen laurdena jan dugu honezkero, belaunaldi berri batek hartu du lekukoa, eta emakumearen presentzia ere guztiz normalizatu da. Hori bai, beste premia batzuk ditugu eta lokalen erabilera gutxitzen joan da. Dena dela, elkarten kopuruari erreparatuz, antzera jarraitzen dugu Eibarren: 60ren bueltan, euren ateak itxi dituzten hiruzpalauren ordeztu, beste hainbeste sortu direlako. Bazkide kopuruaren inguruan ere gauza bera esan dezakegu: 2.200 lagun inguru daude herriko soziedadeetan, 36/37 batz besterik bakoitzean. Txoko horiek, beraz, jarraitzen dute bere funtzioa betetzen. Hemen duzue eurei egindako errepassoa.

On egin!

herriko soziedadeetan

Elkarteen ataleko

AURKIBIDEA

Etxabe & Eizagirre	7	Izarra	46
Aginaga	12	Azpilikuetaren eskutik	47
Alperrak	13	Jaiki	48
Amaña	14	Jatorrak.....	49
Asola Berri.....	15	Jatunak.....	50
Aterpe	16	Kamarroak	51
Badok	17	Kerizpe	52
Baten Bi	18	La Perla	53
Batuak	19	Legarre Gain.....	54
Behartsuak	20	Kerizpeko himnoa	55
1970. hamarkadakoak	21	Lindari.....	56
Bekuak	22	Ondo Nai	57
Beti Asarre	23	Ospelak	58
Beti Galdu.....	24	Otarra	59
Beti Jai.....	25	Pantalla.....	60
Bide Alde	26	Piztu.....	61
Bomba	27	Rakano	62
Botellín.....	28	1996ko liburua	63
Auzorik auzo	29	Sasipe.....	64
Buztarrari	30	Tariña	65
Centro Burgalés.....	31	Txabola	66
Dardai	32	Txirikil	67
Denon Sahatsa.....	33	Txirixo	68
Dorrepe.....	34	Umbe	69
Edozer	35	Unzaga	70
Erdi Bana	36	1996ko liburua	71
Itxi eta zabaldu	37	Urkipe	72
Estrella.....	38	Urkizu Gain.....	73
Gazte Gogor	39	Urko Azpi	74
Gure Bastarra	40	Uso Bide	75
Gure Txokoa.....	41	Zatarrak	76
Ipurua	42	Zatixa.....	77
Itur Ondo.....	43	Zazpi Gazte	78
Itxulanbru	44	Zorionak.....	79
Izar Berri	45	Azken esaldiak	80



Eibarko garapena kozinatzen

Kozinatzeko eta sukaldari bakoitzari bere dohainak erakusteko aukera emateaz gain, “elkarte gastronomikoez artikulazioa eman diote Eibarko herriari”, dio Igor Etxabek. “Eibarko gizartea ehuntzen ekarpena egiten dute elkarte gastronomikoez”, gehitzen du Iker Eizagirrek.

Elkarte gastronomikoez Eibarko historian izan duten garrantzia arakatzeko asmoz, 2019an ikerketa abiatu zuen **Igor Etxabe** Enpresen Zuzendaritzan, Ezagutzan eta Berrikuntzan doktoreak. Demaseko datu-bilketa eskatzen zion lan horrek, eta **Iker Eizagirre** eibartarraren laguntza jaso zuen horretarako.

Hipotesi “oso indartsu” batekin ekin zioten ikerketari, Etxaberen berbetan: Eibarren oso lotura handia dago elkarte gastronomikoen eta enpresen inguruan. “Enpresa munduak oso ibilbide luzea egin du Eibarren, oso herri industrialia da, eta Donostia eta gero, per capita Eibarren zegoen elkarte gastronomikoen kontzentrazio gehiena”, arrazoitzen du ikerlariak.

...eta kitto!-k elkarte gastronomikoen inguruan 1996an kaleratu zuen liburuan agertzen zenez, 2.200 bazkidezik gora zeuden 60 elkarte gastronomikotan zerrendatuta (61 elkarte zerrendatu ditugu liburuxka honetan). Igorrek, bere 2018ko tesian, hurbilketa bat egin zuen eta liburuxka horretako bazkideen datuak Donostiko merkataritza erregistroko Eibarko enpresen datuekin gurutzatu zituen, eta sare informaleen eskema bat osatu zuen; 216 enpresa zeuden ordezkaturak sare informal horretan. Beraz, Eibarrek oso sare informal dentsoa zuela ondorioztatu zitekeen (ugazabak ugazabekin, baina baita ugazabak langileekin ere), eta elkarte gastronomikoez enpresa munduko jendearentzat elkargune zirela. Ikerketa hasi eta sei edo zazpi elkarrizketa egin zituzten informazioa jasotzeko, baita hainbat datu bildu ere. Baina pandemia iritsi zen eta kozinatzen ari zirena zapuztu zuen, ikerketa bertan behera lagaz eta hipotesiak ezin frogatuz. Dena dela, nahiko ondorio sendoak jaso zituzten elkarte gastronomikoen inguruan baieztapen batzuk eman ahal izateko.

NEGOZIOETARAKO APARTEKO KLUBAK

Gerra Zibilaren osteko sasoikoak dira Eibar-ko lehen elkarte gastronomikoak, 40. hamarkadakoak. “Frankismoaren lehen urteak dira, autarkia ekonomikoan gaude eta, Lehen Mundu Gerraz geroztik, Eibar burua altxatzen ari da. Izan ere, I. Mundu Gerraren ostean armagintzak demaseko kolpea jasotzen du, armen eskaria jaitsi egingo delako, eta Eibarko enpresek dibertsifikazio prozesua jarriko dute martxan, armetatik beste produkzio sistema batzuetara igaroz eta beste produktu batzuk ekoiztuz (josteko makinak, bizikletak...)”, azaldu digu Etxabek.

Sasoi horretan informazioa eskuratzeko gaitasuna ez da gaur egun dugun berdina, ez baitzegoen aldizkari espezializaturik edo Internetik. Horrela, dibertsifikazio prozesu horretan, Eibarko enpresek hainbat arazorekin egin zuten topo. “Adibidez, arazo teknologikoekin, ezin zutelako produktu bat nahi beste eraldatu”, ikerlariak dioskunez.

Arazo horretaz gain, frankismoaren bigarren zatian batez ere, egonkortze planen ondoren, enpresak kanpoko merkatuetara begira jarri ziren. Horretarako, merkatu horietan arituko ziren bitartekariak, komisionisten eta horrelakoen beharrak zituzten, eta eurekin harremana egiteko edo merkatu horiek zelan funtzionatzen zuten jakiteko berebiziko papera jokatu zuten elkarte gastronomikoek. “Adibidez, en-

presari batek elkarte gastronomiko baten mahai bueltan aurkitu zezakeen Hendaia-ko komisionista batekin lan egiten zuen norbait, eta beharrezko informazio hori jaso zezakeen”, kontatu digu Etxabek.

Negozioetarako toki ezin hobeak izan ziren elkarte gastronomikoak. “Enpresa mailan askotan ikusi dut, bezero edo hornitzaile batzuk elkarte gastronomikora ekarrita, horiekin konfiantza harreman bat sortzeko aukera sortu zitekeela bertan. Enpresara bisitan ekoizpen-planta erakutsi diezaiokezu, baina askotan esaten zen patxaran bat aterata eta Fariasa pizterakoan hasten zela benetan partida, hor hasten zela konfiantzazko harremana sortzen eta hor irabazi ahal zenuela beste pertsona hori”, Etxaberen berbetan, eta zera gehitzen du: “Soziedadeetako lau paretek berba egingo balute, benetan jakingo genuke hor barruan benetan zer kozinatu den”.

Kerizpe elkarte gastronomikoaren izena nabarmentzen da negozioez eta eliteaz jarduten dugunean. “Kurdin kuadrillatik eratorritako Kerizpe elkarteak da Eibarren sortu zen lehenetako bat, lehena ez bada (ez dago ziurtasunik). 1948an sortu zen eta elite ekonomiko-sozial baten elkarte gastronomikoa da. Armagin guztiak zeuden, medikuak, Athletic-eko jokalaririk bat edo beste... Klub selektu bat da”, ikerlariaren berbetan.



Itxulanbruko bertsoak.

DEMOKRATIZAZIOA ETA IZATE-ZENTZUA

Elkarte gastronomikoek Eibarri egin dioten ekarpena ez da enpresa mundura bakarrik mugatu, kohesio sozialaren inguruan ere paper garrantzitsua jokatu dutelako. Izan ere, elkarte gehienak 70. hamarkadaren inguruan sortu ziren, herrian transformazio handia eman zen sasoian, kanpotik jende asko etorri baitzen lanera. “Orduan, enpresek kohesio sozial horretan paper garrantzitsua jokatzen duten moduan (jatorri ezberdinetako jendea elkartzeko balio dutelako), elkarte gastronomikoek ere horretarako balio izan zuten. Eibarren jaio ez zen jende askorentzat elkargunea izan zen hemengo bizitzara lotzeko eta hemen bizi berria hasteko”, Eizagirrearen berbetan.

Elkarte gastronomiko gehiago sortu ziren neurrian, euren izaera demokratizatu egin zen. “Langile jendeak osatzen zituen elkarteak eta edonor izan zitekeen elkarteetako bazkide”, gehitzen du eibartarrak.

Kuadrillen papera berebizikoa izan zen bila-kaera horretan eta ikerketa egin zuten bitar-

tean atzeman zuen gauza bat aipatzen du Eizagirrek: “Elkarteko kideen artean badago harrotasun bat euren elkarteekiko”, bere ustez. “Predisposizio handia erakutsi zuten ikerketa egin genuenean, gure eskura edozein gauza jarriz. Eibartarron ezaugarri dira elkarte gastronomikoak, eta galtzeko beldurrez edo, jendea memoria ariketa egiteko prest dago, besteak beste”.

Bakoitzak berea harro defendatu arren, Eibarko elkarten artean harreman-sarea badagoela ere nabarmentzen du Etxabek: “Adibidez, euren arteko lehiaketak antolatu izan dira. Urtean zehar zita batzuk zeuden elkarren artean harremantzeko. Beraz, bakoitzak bere elkartearekiko harrotasuna sentitzeaz gain, egon izan da beste elkarteekin harremantzeko sare bat, beste herri batzuetan ikusten ez dena”.

Sare hori harago eramanez, Auzokoak aurkitu dezakegu, Urkizun inguruko elkarte gastronomikoak batzen dituen elkarteak.



Gazte Gogor-eko bazkideak.

BELAUNALDI ETA ERABILERA BERRIAK

Azken urteotan elkarte berriak sortu dira (1996ko liburuxkan baino elkarte bat gehiago zenbatu dugu oraingoan), baina kalean ahoz-aho dabil elkarteen erabilera asko jaitsi dela, batzuek bizirauteko arazoak dituztelarik. Ikerketa egiten zuen bitartean zera atzeman zuen Eizagirrek: “Elkartetik elkartera ezberdintasunak ikusten dira, adibidez inbertsio aldetik. Ikusten da, halaber, elkarte historiko batzuek aktibitatea jaitsi dutela, eta berri batzuek askoz ere erreminta eta itxura modernoagoak dituztela”.

Hainbat hamarkada pasa dira elkarte gehienak sortu zirenetik eta belaunaldien arteko erreleboa egon da, elkarteen jardunean era-

gin duelarik. “Elkarte asko kuadrilla batetik edo batzuetatik sortu ziren, eta ondorioz, lagunen artean osatzen zituzten elkarteak. Ostera, gurasoek seme-alabei lekukoa ematerako orduan, elkarteen izaera askoz ere heterogeneoagoa bilakatu da, seme-alabak kuadrilla ezberdinetakoak izan daitezkeelako. Horrela, izan daiteke elkarteetako kide batzuek euren artean harremanik ez izatea, behintzat ez kuadrilla berekoak izango balira bezala. Horrek lehen aipatutako izate-zentzua lausotzea ekarri dezake, baina era berean elkarteak heterogeneoagoak izatea sustatzen du eta jende gehiagorengana heltzeko aukera ematen du”, diosku Eizagirrek.



**Asola Berriko
bazkideak. 1968.**



**Alperrek-eko
bazkideak. 2010.**

EMAKUMEEN SARRERA

Elkarte gastronomikoak gizonezkoentzako tokiak izan ziren hastapenetan eta emakumeen sarrera mailakatua izan da historian zehar. Lehendabizi, emakumeei elkarteetan sarrera baimendu zitzairen, batzuetan sarrera bera ere debekatuta zutelako.

Bigarrenik, sukaldera sartzeko aukera eman zitzairen. “Berez ulertzen zen elkarte gastronomikoetako sukaldeetan gizonezkoek bakarrik kozinatu behar zutela, nolabait etxean emakumeek kozinatzen zuten horren kontraprestazio moduan. Kartelen bat ikusi dut zera zioena: ‘Emakumea, badakit oso sukaldari ona zarela, baina kozinatu ezazu etxean, hemen nik kozinatuko dut’. Horrela, emakumea elkarte gastronomikoetan baztertuz: sarrera ema-

nez baina sukaldean sartzeko aukerarik ez”, Etxabek azaldu digunez.

Hirugarren eta azken fasean, emakumeak bazkide bezala onartzeko pausoak eman ziren. “Gaur egun ez dakit nola dagoen kontua, baina uste dut elkarte gehienetan emakumeak bazkide bezala onartzen direla, eta horrek beste kolore eta aniztasun bat eman die elkarteei”, gehitzen du Etxabek. “Lehen komentatzen genuen eliteen elkargune izan zitezkeela eta, ondorioz, antzeko profileko jendea elkartzen zen bertan. Gaur egun, oster, profil anitzeko jendea biltzen da elkarteetan eta horrek aberastu egiten ditu, beste gauza batzuetarako bilgune izan daitezkeelako”. Horrela, osagai berri eta anitzekin egosiko da Eibarren etorkizuna.



Zatarra-eko bazkideak.



Edozer-eko bazkideak.

Agiña



Elkartearen FITXA

Izena: Agiña

Helbidea: Aginaga auzoa, 1

Sorrera-data: 1996-09-21

Bazkide kopurua: 10

Kuota: Ez dago

Egun berezia (ospakizun eguna): Irailak 29, San Miguel eguna

Urteroko ekitaldiak: San Miguel jaiak, jaietako batzordearen bilerak, elkartearen urtekoa, jaietako muntaia lanak

BESTELAKOAK

Kuotarik ez dute ordaintzen egoitza elizarena delako. Horregatik, elkarteak erabiltzeko aukera dauka, zerbitzu batzuen truke. Eliza barruan dago eta bazkideek usufuktuan dute, lokala eta inguruak mantentzearen truke.

Beheko argazkia: Aginagako San Miguel elizan dute lokala.



Alperrak



Elkartearen FITXA

Izena: Alperrak

Helbidea: Ifarkale, 1

Sorrera-data: 1964-06-25

Bazkide kopurua: 28

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna): Ekaineko lehen zapatua

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Izenaren inguruan, elkartea sortu zuten lagunen arteko batzuk langileak ziren eta gutxi batzuk oraindik ikasle; elkarren artean, adarra jotzen, alperrak deitzen zieten langileek ikasleei eta alderantziz. Txantxarekin jarraituz, izen hori hartu zuen elkarteak. Danborradaren aitzindaria izan zen, 30 lagunekin osatutako taldea Mototx tabernan (gaurko Guridin) bildu zenean.

Beheko argazkia: 2014koa, elkarteak 50 urte egiterakoan.



Amaña



Elkartearen FITXA

Izena: Amaña

Helbidea: Amaña, 4-6

Sorrera-data: 1971-08-18

Bazkide kopurua: 40

Kuota: 260 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): Abenduaren bigarren barixakua

Urteroko ekitaldiak: Amañako jaiak. Kolaboratzaile herriko beste jaiekin ere.

BESTELAKOAK

Amañako auzotarren eta lagun batzuen arteko ekimenez sortu zen elkarte, euren arteko harremana indartzeko eta bertako kulturaren alde egiteko.

Urteetan 50 bazkideren bueltan ibili dira, baina pandemiaren ondoren 40rekin gelditu dira.

Sartzeko kuota 200 eurokoa da. Euren egun berezian bazkide guztiak batzen dira afari baten bueltan.



Asola Berri



Elkartearen FITXA

Izena: Asola Berri

Helbidea: Arrate Bide, 31

Sorrera-data: 1962-12-08

Bazkide kopurua: 53

Kuota: 250 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): Martxoak 19 (San Jose)
eta urriak 12

Urteroko ekitaldiak: Hiru-txirloko txapelketak

BESTELAKOAK

Elkartearen sorrera Matsariako Mandiola auzoko baserri bateko tabernan egin zuten.

Bittor Ugarteburua zen jabea eta hiru-txirloko bolatokia zuen bertan.

Elkartea han egon zen 1962tik 1968ra arte, azken data horretan Arrate Bidera aldatzeko.

Bazkideen artean, 41 kuotazkoak dira eta beste 12 honorarioak.

Beheko argazkia: 2012koa, elkarteak 50 urte egiterakoan.



Aterpe



Elkartearen FITXA

Izena: Aterpe

Helbidea: Urki, 23

Sorrera-data: 1974

Bazkide kopurua: 30

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrileko bigarren domeka

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Hilabete bakoitzetako azken barixakuetan bazkideek bakarrik hartzen dituen afariak egiten dituzte. Zuzendaritza aldaketa hamarretako batekin egiteko ohitura izan dute.

Aurten ospatutako elkartearen 50. urteurrenean, Mateo Guilabert, Jose Luis Larrazabal, Jesus Mari Barrenetxea eta Jose Sacedo bazkide fundatzaileak omendu zituzten.

Beheko argazkia: 2024koa, elkarteak 50 urte egiterakoan.



Badok



Elkartearen FITXA

Izena: Badok

Helbidea: Estaziño, 16

Sorrera-data: 2022

Bazkide kopurua: 13

Kuota: 60 euro hilero / bikoteek edo senideek binaka, 70 euro

Egun berezia (ospakizun eguna): Guztiak, arrazoi ezberdinengatik

Urteroko ekitaldiak: Asteroko zine-kluba, rol-jokoak, tupper-sex...

BESTELAKOAK

Izena Ez Dok tabernan (ondoren, Zai Zoi izena hartu duena) elkartzen zen lagun talde batek sortua da, pandemia garaian mahai-jokoetan aritzeko eta musika entzuteko lokal baten beharra zela eta.

Beheko argazkia: 2024koa, bazkideetako batzuekin.



Baten Bi



Elkartearen FITXA

Izena: Baten Bi

Helbidea: Untzaga, 7

Sorrera-data: 1967-12-24

Bazkide kopurua: 28

Kuota: Jabeek 25 euro hilero, kuotako bazkideek 30 euro

Egun berezia (ospakizun eguna): Ekainak 12

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Elkartea sortzeko bi kuadrilla elkartu ziren, eta hortik dator izena. Kuotako bazkideek ez dute ezer ordaindu behar elkartera sartzeko, euren kuota bakarrik. Elkartearen jabeek 300 euro ordaintzen dute urtean, eta kuotako bazkideek 360 euro. 40 bazkide izan ziren bitartean, urtero ibilaldi bat egiten zuten eta hilabetean behin bazkideen afaria.

Beheko argazkia: 2024koa, bazkide batzuen arteko afari batean.



Batuak



Elkartearen FITXA

Izena: Batuak

Helbidea: Bista Eder, 5

Sorrera-data: 1972-12-28

Bazkide kopurua: 37

Kuota: 20 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Ekainean

Urteroko ekitaldiak: Urteroko txangoa, ekaineko lehenengo zapatuan

BESTELAKOAK

Kuadrilla desberdinetakoak zirelako hartu zuten izen hori batzerakoan.

Bista Eder kalean lehen zeuden hainbat tailerretatik bat hartu zuten elkartearentzat.

Garagoitxiko txabola ere, 1967an eraikia, elkarteari lotuta dago.

Beheko argazkia: 2023koa, elkarteko kamisetarekin.



Behartsuak



Elkartearen FITXA

Izena: Behartsuak

Helbidea: Errekatxu, 11

Sorrera-data: 1979-04-01

Bazkide kopurua: 27

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Izena diru kontuengandik datorrela diote, elkarte pobrea delako eurena. Kuotarekin lotuta, gastu minimoa ere ezarrita dute: 40 eurokoa izan behar da, bi hilabetetan.

Dagoen tokian aurretik Sasipe elkartea egon zen.

Beheko irudia: Elkartean duten koadroarena.



GEHIENAK 1970. HAMARKADAKOAK

Elkarte berri gutxi sortu dira XXI. mendean. Gehienak, askogatik gainera, XX.ekoak dira. Eta aurreko mendean ere badago alderik, 1965.etik 1980.erainoko tarte horretan izan zelako elkarte gastronomikoen boom-a gurean. Orain bere ateak ixteko dagoen Txabola izan zen aitzindaria, herriko elkarterik handiena den Kerizperekin batera. Hona hemen gutxi gorabeherako sortze-datak:

1943: Txabola / 1948: Kerizpe / 1950: Tariña / 1958: Alperrak / 1961: Centro Bungalés / 1962: Zatixa, Asola Berri / 1964: Krabeliñ / 1967: Edozer, Itxulanbru, Baten Bi / 1968: Bomba, Buztarri, Sasipe / 1969: Estrella, Otarra / 1970: Urko Azpi / 1971: Legarre Gain, Rakano, Zazpi Gazte, Pantalla, Amaña / 1972: Jatorrak / 1973: Batuak, Botellín, Dardai / 1974: Zatarrak, Aterpe, Uso Bide, Txirikil, Itur Ondo, Beti Jai / 1975: Unzaga, Gure Bastarra, Urkizu Gain, Zorionak, Beti Galdu,

Bekuak, Dorrepe, Ondo Nai, Ipurua, Beti Asarre / 1976: Lore Toki, Izarra, Txistu, Urkipe / 1977: Umbe, Ospelak, Gure Txokoa, Jaiki, Jatunak, La Perla / 1978: Erdi Bana, Piztu, Kamarroak / 1979: Behartsuak / 1980: Bide Alde / 1983: Gazte Gogor / 1987: Izar Berri / 1996: Aginaga / 2000: Lindari / 2007: Denon Sahatsa / 2012: Txirixo / 2022: Badok

1975a izan zen urterik emankorrena arlo horretan, orduko hartan 10 soziedade sortu baitzituzten. Aurrekoan (1974) eta 1971n eta 1977an seina elkarte zabaldu ziren, esaterako, eta hamarkada osoa hartuz gero, 40 dira tarte horretakoak, hau da, herrian dauden bi herenak. Gero badirudi modaz pasatu zela eta belaunaldi berriek ez diotela modu berean eutsi tradizio horri. Ohiturak ere asko aldatu dira urteen poderioz eta oso gutxi dira eguneroko jarduna dutenak.

since 1930

SIBARIS WINE

by Coloniales

*Nahi duzun ardoa
aurkituko duzun lekuan*

Coloniales
Anselmo González
1930
CASA FUNDADA EN 1930

Barrena Kalea 46, 20600 Elbar info@clubsibaris.com 943 120 202

Bekuak



Elkartearen FITXA

Izena: Bekuak

Helbidea: Barrena, 42

Sorrera-data: 1975

Bazkide kopurua: 24

Kuota: 35 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Junta aldaketarekin, bazkaria ere bai

Urteroko ekitaldiak: Gureak-eko langileei prestatutako bazkaria (Auzokoak-ekin batera), jubilatuentzako...

BESTELAKOAK

Guztiak Barrena kalekoak ez badira ere, herriaren behe aldekoak dira guztiak.

Sasoi batean, emakumezkoek egun seinalatuak zituzten bertan sartzeko.

Zuzendaritza aldaketa aprobetxatuz, bazkaria egiten dute beti.

Beheko argazkia: 2016koa, elkarteak 40 urte egiterakoan.



Beti Asarre



Elkartearen FITXA

Izena: Beti Asarre

Helbidea: Ifarkale, 1

Sorrera-data: 1975-12-20

Bazkide kopurua: 15

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): San Andres eta San Juan bezperak

Urteroko ekitaldiak: Elkarteko eguna ekainaren lehen asteburuan ospatzen dute

BESTELAKOAK

Txikitako lagunak izanda, elkartea sortzeko erabakia hartu zutenean, urte haietan Txaltxa Zelain jokatzeko osatzen zuten futbol taldearen izena hartu zuten. Futboleant nahiko onak zirenez, bigarren ekipo bat ere sortu zuten, Beti Lagun izenekoa. Baina lehenengo taldearen izena hartu zuten. Haien seme-alabek diotenez, "izena egokia da, nahiko *asarreginak* izan direlako beti".

Behoko argazkia: 1982koa, Arraten egindako ospakizun batean.



Beti Galdu



Elkartearen FITXA

Izena: Beti Galdu

Helbidea: Miguel de Aginaga, 5

Sorrera-data: 1975-02-28

Bazkide kopurua: 25

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrileko lehenengo barixakua

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Sortzaile guztiak herriko goiko aldekoak ziren, kuadrilla berekoak. Futboleko taldearen izena Randas zuten, baina "alkatearen gustokoa ez zenez", Beti Galdurekin geratu ziren. Dena dela, "pixka bat postizoa ere bada izen hori, ez zutelako beti galtzen". Errekatxun zegoen Txistu elkarteko bazkide gehienak Beti Galdura pasatu ziren bestea desagiterakoan.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa.



Beti Jai



Elkartearen FITXA

Izena: Beti Jai

Helbidea: Elgeta Kale, 3

Sorrera-data: 1974-11-29

Bazkide kopurua: 38

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrileko bigarren zapatua

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Kuadrilletako 50 lagunen bueltan osatutako elkarte, gehienak kuadrilla berekoak. Hasieran Calbetoneko Juanito tabernan batzen ziren. Hainbat Bakailao Lehiaketetako irabazle izandakoak. 90. hamarkadan giltzak pasatzen hasi ziren semeei, eta 2010ean (emakumeei tokia egiteko) eta 2022an (kanpoko jendeari) estatutoak aldatu zituzten.

Beheko argazkia: 2024koa, elkartean bertan.



Bide Alde



Elkartearen FITXA

Izena: Bide Alde

Helbidea: Txaltxa Zelai, 8-10

Sorrera-data: 1980ko maiatza

Bazkide kopurua: 75 (ohorezkoekin batera)

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna): Maiatzeko azken zapatua

Urteroko ekitaldiak: Batzar Nagusia egiten den eguneko bazkaria

BESTELAKOAK

Elkarte hori Pol Pol moduan da ezagunagoa. Aurretik Pol Pol taberna egon zelako hor; baina, izena ipintzerakoan, Bergaran mendi elkarte bazegoela eta, ez zieten laga.

Izen berria lehendik Kalamua aldean zuten txabolaren izenetik hartu zuten.

Beheko argazkia: 2024koa, Untzagan aterata.



Bomba



Elkartearen FITXA

Izena: Bomba

Helbidea: Bidebarrieta, 5

Sorrera-data: 1967-02-10

Bazkide kopurua: 44 / 11 erabiltzaileak

Kuota: 300 euro urtean / 150 euro bazkide erabiltzaileen kasuan

Egun berezia (ospakizun eguna): Maiatzaren 1a

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Fraideetan ikasten zuten kuadrillakoek sortutako elkarte, ordutik hartu zuten izena, mutikotan futboleant jokatzen zuten ekipotik.

Beheko argazkia: San Andres parrokiaren ondoan ateratako taldearena.



Botellín



Elkartearen FITXA

Izena: Botellín

Helbidea: Bista Eder, 5

Sorrera-data: 1973

Bazkide kopurua: 33

Kuota: 230 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak: Urteroko Batzarra egiten dute urtarrilaren lehenengo zapatuan

BESTELAKOAK

Izena elkarte sortu zuen kuadrillaren futbol taldekotik dator: taldeak Txaltxa Zelain jokatzeko zuen Botellín izenarekin (euskeraz, Bonbiltxo). Sasoi batean, hilaren lehenengo barixakuak, "kaskajuen egunak" ospatzen zituzten. Gabonak pasatuta, urte berriarekin batera, egiten dute Urteroko Batzarra.

Behoko irudia: Elkartean duten koadroarena



AUZO BATZUETAN KONTZENTRAZIO GEHIAGO

Eibarko soziedade askok aurretik etxe azpian izandako tailerren espazioa hartu zuten. Horrela, auzo batzuetan beste batzuetan baino pilatuago daude elkarteak. Hilerritik behera dauden kaleetan elkarte asko aurkitu ditzakegu, bat edo beste garajeetan ere tokia duenak. Bide Alde (Txaltxa Zelai), Umbe (Mutiloa), Beti Jai (Elgeta Kale), Zatarrak, Uso Bide eta Beti Galdu (Miguel Aginaga), Jatarrak eta Rakano (Eulogio Garate) eta Behartsuak (Errekatsu) daude tarte horretan. Eta behe-rantz jarraituz, Bista Eder kalea da nagusi gure herrian, bertan 10 elkarte aurki ditzakegu eta: Itur Ondo, Gure Bastarra, Batuak, Botellin, Sasipe, Ondo Nai, Jatunak, Zazpi Gazte, Pantalla eta Txirixoz, azken hori berriena. Gorrako ere ez dira elkarteak falta, Urki aldean Aterpe, Ospelak eta Urkipe zain baditugu, San Kristobalen Gure Txokoa eta Otarra daudelako. Amañako auzoan lau soziedade daude,

aurretik zeuden La Perla, Amaña eta Urko Azpiri Lindari ere gehitu zaielako. Ipurua aldean Ipurua eta Galdaramiño dauden bezala, Arrate-Biden Piztu eta Legarre Gain ditugu, eta zezen-plazatik gertu Centro Burgalés eta Peña Txinbera. Herriko erdigunera jaitsita, Untzagan Baten Bi, Izarra, Unzaga eta Kerizperekin egingo dugu topo, Calbeton kalean Dardai eta Zorionak daude, Ifar-kalen Beti Asarre eta Txirikil, Bidebarrietan Estrella eta Bomba eta Julian Etxeberrian Tariña eta Buztari. Toribio Etxebarria kalean ere ez dira falta: Gazte Gogor, Alperrak, Zatixa eta Itxulanbru hor daude, eta Kamarroak San Juan kalean. Muzategi kaleko Izar Berri eta Ibarcurutzeko Txabolatik behera, Urkizu aldean Edozer, Dorrepe, Jaiki, Urkizu Gain, eta Erdi Bana daude. Karmen kaleko Denon Sahatsa eta Barrena kaleko Bekuak azkenak dira ia herritik kanpo dagoen Asola Berrira iritsi aurretik.

MUGIKA
Harategia - Urdategia
Carnicería - Charcutería

Urkizu, 18 943120194

Baserriko Haragia

Buztarri



Elkartearen FITXA

Izena: Buztarri

Helbidea: Julian Etxeberria, 17

Sorrera-data: 1968

Bazkide kopurua:

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Informazioa bidaliko zigutela esan baziguten ere, azkenean ezin izan dugu bildu. Horregatik, 1996ko ekainean argitaratutako orduko publikaziotik jaso dugu informazio laburra, eta baita orduko hartan azaldu zen beheko argazkia ere. Han esaten zutenez, izena denok bat egiteko beharretik dator; parlamentua ere deitzen zioten euren arteko bilerei.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa.



Centro Burgalés



Elkartearen FITXA

Izena: Centro Burgalés

Helbidea: Zezenbide, 9

Sorrera-data: 1961

Bazkide kopurua: 36

Kuota: 25 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): San Pedro eguna

Urteroko ekitaldiak: Ekainaren 29ko santuaren egunean
hamaiketakoa egiten dute

BESTELAKOAK

Izenari erreparatuz, batek pentsa dezake bazkide guztiak Burgosekoak direla, baina ez da kasua. Hasieran ere, erdiak edo ziren bertakoak.

Beheko argazkia: 2024koa, elkartearen aurrean ateratakoa.



Dardai



Elkartearen FITXA

Izena: Dardai

Helbidea: Fermin Calbetón, 26

Sorrera-data: 1973

Bazkide kopurua: 40

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Urteroko Batzarra

Urteroko ekitaldiak: Batzar hori Erregeak pasata egiten dute, lehenengo zapatuan

BESTELAKOAK

Izena "flecha" euskerazetik dator. Sasoi batean kuadrillan kaja egiten zuten, bateren bat egoera larrian egotekotan hari laguntzeko. Kuota horri "flecha" deitzen zioten, eta izen horrekin bataiatu zuten orduko sasoioko euren futbol taldea ere. Ipuruan jokatu zen Gazte Txapelketaren lehenengo edizioa eurek bereganatu zuten.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa, elkarteko lehen zuzendaritzarekin.



Denon Sahatsa



Elkartearen FITXA

Izena: Denon Sahatsa

Helbidea: Karmen, 4

Sorrera-data: 2007-02-06

Bazkide kopurua: 35

Kuota: 50 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Otsailaren bigarren astea

Urteroko ekitaldiak: Batzar Orokorra

BESTELAKOAK

Gaur egun elkartearen egoitza dagoen tokian, Arrillaga klinika zegoen esparru horretan, aurretik sahas haundi bat izan zelako hartu zuten izen hori, guztiona bihurtuz.

Beheko argazkia: Karmen kaleko lokalaren irudia, barrutik.



Dorrepe



Elkartearen FITXA

Izena: Dorrepe

Helbidea: Urkizu, 11

Sorrera-data: 1975

Bazkide kopurua: 42

Kuota: 350 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Elkartearen izena Urkizuko dorrearen azpian egotetik dator, besterik gabe.

Beheko argazkia: Urteurren bateko irudia, elkartekoak Urkizuko iturriaren aurrean bilduta.



Edozer



Elkartearen FITXA

Izena: Edozer

Helbidea: Txonta, 1

Sorrera-data: 1967-01-05

Bazkide kopurua: 46

Kuota: 270 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): San Juan eta San Andres bezperak

Urteroko ekitaldiak: Gureak-eko langileei prestatutako bazkaria (Auzokoak-ekin batera) eta Euskal Jairako bazkaria

BESTELAKOAK

Txontarako sarreran dagoen elkarteari izena ipintzeko izandako "zailtasunei" erantzuten dio azkenean erabakitakoak. Bateren batek "nahikoa da" esan eta, jarraian "jarri edozer gauza" esan zuenean, adostasunera iritsi ziren eta "Edozer" horrekin amaitu zituzten orduko bilerak.

Beheko argazkia: 2017koa, elkarteak 50 urte egiterakoan.



Erdi Bana



Elkartearen FITXA

Izena: Erdi Bana

Helbidea: Urkizu pasealekua, 1 - 6.

Sorrera-data: 1978-02-06

Bazkide kopurua: 31

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Abenduaren 28a

Urteroko ekitaldiak: Gureak-eko langileei prestatutako bazkaria (Auzokoak-ekin batera)

BESTELAKOAK

Kuadrilla biko lagunek osatutako elkarte da: bien artean banatu eta bakoitzari erdia tokatzen zitzailea erabakita. Sasoi batean, gainera, kuadrilletako bi lagun Burgosera joaten ziren urtero, abenduaren 28ean, bertatik bildotsa ekartzeko.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa.



GUTXI ITXI BADITUZTE ERE, BERRIAK ERE GUTXI DIRA

1996an aurreko publikazioa atera genuenetik, lau dira euren ateak itxi dituzten elkarteak: Krabeliñeko txabola da horietako bat, elkarte berezia benetan. Ehizari esker ezagutzen zirenen artean sortu zuten 1964an. Urritik urtarilerara arte domekero hamarretakoa egiten zuten bertan eta Kalamuatik buelta bat ematen. Afariren bat kenduta, soziedadea hutsik egoten zen; pentsa, jeneroa ere ez zuten erosten, han mendian edozeinek lapurtzeko aukera zuela eta, beldurrez. Jardiñeta 23an zegoen Lore Toki da horietako beste bat. 1976an sortutakoa, San Isidro zuten bere eguna. Izena erdarazko Jardines kalearen izenetik hartu zuten eta bertakoa izan zen Eibarko elkarte batean sartu zen lehen emakumezkoa, Garbiñe Kortabarrak Jose bere aitaren tokia hartu zuenean. Errekatxuko Txistuk ere aspaldi itxi zituen bere ateak. Elkarteko bazkide gehienak Ipuuakoak ziren,

Txistu eta Txapela kuadrillakoak, eta gure publikazio atera genuenerako emakumeak arazo barik sartzen ziren bertan. Txabola izan daiteke laugarrena, oraindik zutik badirau ere, bere bidea amaitzekotan delako, gaur egun dituen sei bazkiderekin: elkarte zaharrena edo zaharrenetarikoa, Kerizperekina batera, txikienetakoa ere bada.

1996ko liburua kaleratu ondoren, lau elkarte berri ditugu oraingo honetan. Agiña justu 1996 hartako irailean sortu zuten; San Miguel jaiak antolatzen dituzte eta kuotarik ez dute, lokala usufruktuan dutelarik. Amañan dagoen Lindari 2000. urtearen bueltakoa da, eta handik zazpi urtera, Denon Sahatsak zabaldu zituen ateak Karmen kalean. Bere kaleko izena hartu duen Txirixo ere berria dugu, 2012koa. Eta 2022ko Badok da berriena, baita beste giro batekoa ere, lehen Valle taberna zegoen tokian, Estaziño kalean.

SERIGRAFIA. BORDATUAK. MANTALAK. MAHAI-ZAPIAK ETA AHO-ZAPIAK.
TUPPERRAK. LABANAK. ZARTAGINAK. LAPIKOAK.

WWW. **MEKAHOTEL** UNIFORMES.COM



ESTAZINO KALEA, 6 943 12 74 09

Estrella



Elkartearen FITXA

Izena: Estrella

Helbidea: Bidebarrieta, 3

Sorrera-data: 1969

Bazkide kopurua: 15

Kuota: 350 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): Azaroko lehen zapatua

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Elkartearen izena sasoi bateko futbol taldearen izenetik hartu zuten elkartearen sortzaileek.

Beheko argazkia: Orain dela urte batzuk ateratakoa.



Gazte Gogor



Elkartearen FITXA

Izena: Gazte Gogor

Helbidea: Toribio Etxebarria, 24

Sorrera-data: 1982

Bazkide kopurua: 45

Kuota: 36 euro hileroko

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrileko azken zapatua

Urteroko ekitaldiak: Urteroko txangoa (zuzendaritzak erabakitzen du eguna)

BESTELAKOAK

Elkartea sortzeko bi kuadrilla batu ziren: alde batetik, Gogorrak zeuden; eta, bestetik, Gazteak izenekoak. Urtarrileko azken zapatua elkartearen eguna da. Eta, urteroko txangoari eusten badiote ere, data zehatzik ez du eta, azken batean, zuzendariaren esku egoten da. Mikel Zarrabeitia txirrindulariaren laguntaldea edo peña ere sortu zuten bertakoek.

Beheko argazkia: Txango bat aprobetxatuz ateratakoa.



Gure Bastarra



Elkartearen FITXA

Izena: Gure Bastarra

Helbidea: Errekatxu, 5 B

Sorrera-data: 1975-04-07

Bazkide kopurua: 50

Kuota: 25 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Azaroak 29

Urteroko ekitaldiak: Garagardoaren Jaia azaroan,
Anaitasun Afaria urtarrilean

BESTELAKOAK

Danok Bat izena ipintzeko asmoa bazuten ere, gobernadore zibilak ez zien laga. Kuadrilla historikoenak ziren tartean, guztiak komunistak eta sozialistak, Furia Rojakoak bezala ezagutuak. Gerra ondoren, kartzelatik edo "Langileen Batailoietik" pasatutakoen ondorengoak. Geroago sartu ziren Adiskideak elkartekoak, euren soziedadea erre egin zenean.

Beheko irudia: Elkartean duten koadroarena.



Gure Txokoa



Elkartearen FITXA

Izena: Gure Txokoa

Helbidea: San Kristobal, 5

Sorrera-data: 1977-07-22

Bazkide kopurua: 39

Kuota: 25 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Azaroak 1

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Azaroaren 1ean, Batzar Orokorra egiteaz gain, bazkideen arteko bazkaria egiten dute.

Behoko argazkia: 2002koa, elkarteak 25 urte egiterakoan.



Ipurua



Elkartearen FITXA

Izena: Ipurua

Helbidea: Argatzako Jardíñak, 22

Sorrera-data: 1974-11-30

Bazkide kopurua: 36

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Azaroan eta Urtarrilean

Urteroko ekitaldiak: Ipuruako Jaiak, Euskal Jaiak, bazkideen arteko bazkaria (tute txapelketa), emakumezkoen omenezko afaria...

BESTELAKOAK

Izena auzoaren izenetik dator, ingurune horretan ipuru mordoia izaten zelako; izan ere, auzoa Ipuruaga deitu izan zen hasieran, -aga akabera horrek "multitud" esanahia zuelarik. Gero pasatu zen Ipurua izatera.

Beheko argazkia: 2024koa, elkarteak 50 urte egiterakoan, Casinon bazkaldu ondoren.



Itur Ondo



Elkartearen FITXA

Izena: Itur Ondo

Helbidea: Bista Eder, 19

Sorrera-data: 1976-09-09

Bazkide kopurua: 41

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrilaren hirugarren domeka
(urteroko batzarra)

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Errekatxuko iturri ondoan zegoelako, hortik datorkio izena elkarteari; hasierako elkarte ere bertan egon zelako.

Beheko argazkia: Elkartearen irudia, barrutik.



Itxulanbru



Elkartearen FITXA

Izena: Itxulanbru

Helbidea: Toribio Etxebarria, 8

Sorrera-data: 1969

Bazkide kopurua: 18

Kuota: 350 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): Abenduak 28 (bazkideen bazkaria)

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Izenak haundiki hitzaren esamolde zaharretik dator: "Hori fantasma bat dok" esateko erabiltzen zen askotan. Eibarko Euskal Jaietan lehenengo karrozak prestatu zituzten bertatik. Honakoa dute idatzita: *Txoko onen billa pasa genduen Eibarko erririk geiena. Eta toki hau pentsatzen degu ez dala izango txarrena. Danan gustora jarri diogu guk Itxulanbru izena. Seguro gaude txoko hau dala Eibarren dagon onena.* **Beheko argazkia:** 1996ko liburutik hartutakoa.



Izar Berri



Elkartearen FITXA

Izena: Izar Berri

Helbidea: Muzategi, 2

Sorrera-data: 1988ko Urria

Bazkide kopurua: 42

Kuota: 25 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Urriaren 14a

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Sortzaileek Txaltxa Zelain jokatzeko zuten ekipoaren izena hartu zuten elkarterako. Hasieran Errekatxu kalean jartzeko asmoa izan zuten, baina iritiz aldatu zuten.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa.



Izarra



Elkartearen FITXA

Izena: Izarra

Helbidea: Untzaga Plaza, 10 - 1.

Sorrera-data: 1976

Bazkide kopurua: 38

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna): Abenduan

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Lagun kuadrilla batek sortua, Txaltxa Zelain jokatu zuen euren futbol ekipo baten izenarekin.

Beheko argazkia: Elkartekoak aspaldiko irudi batean, herriko jende ospetsua tartean dela.





AZPILIKUETAREN ESKUTIK



Jose Antonio Azpilikueta marrazkigileak egin digu, orain dela 28 urte egin zuen bezala, ale honetako azala, gure herriko gaur egungo elkarre gastronomikoen publikazioaren irudia izango dena. Eibartarrak ondo ezagutzen du gure herria eta beraren ezaugarriak, baita elkarre-etako giroa ere. Hori aprobetxatuz, jakina, guk proposatu eta berehala eman zigun baiezkoa.

Aspaldiko partez, Ebarista eta Mendikute berreskuratu nahi izan ditu oraingoan: “Gustora egin dut gainera”, diosku. Euren soziedadea ekarri digu azalera, “Perrejilla” hain zuzen ere, emakumeak lehen lerrora ekarriz, bere lehen azaletik ia hiru hamarkada pasatu diren urteek eragindako aldaketaren seinaleztat hartu behar duguna. Eskerrik asko, Jose Antonio, zure esku zabaltasunarengatik.



**BACALAO
ALKORTA**

**BAKAILAO
TXAPELDUNA!**

943 744 581
www.bacalaosalkorta.com



Jaiki



Elkartearen FITXA

Izena: Jaiki

Helbidea: Urkizu pasealekua, 1 - 4.

Sorrera-data: 1976-10-05

Bazkide kopurua:

Kuota:

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrileko bigarren zapatua

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Izena hermandade edo anaidiaren batetik hartu zuten, bertako jendea sartu zelako elkartean. Sasoi bateko kuadrillek ohitura zuten botea gordetzeko tabernetan horretarako zeuden kasiletan; kuadrilla honetakoek Txaltxa Zelaiko Jaiki tabernan gordetzen zuten eurena, eta Rafa bertako jabea ere kuadrillakoa zen.

Beheko irudia: Elkartean duten koadroarena.



Jatorrak

Jatorrak

Elkartearen FITXA

Izena: Jatorrak

Helbidea: Eulogio Garate, 3

Sorrera-data: 1972-05-01

Bazkide kopurua: 10

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Otsaileko Batzar Orokorra

Urteroko ekitaldiak: Bazkideen urtebetetzea ospatzeko urtean bitan egiten zituzten afariak berreskuratzeko asmoa dute

BESTELAKOAK

Hasierako kuadrilla Eibarren Elkano izenarekin ezagutzen zen, baina izen horrekin bazegoen Gipuzkoan beste elkarte bat. Gaur egun jatorrizko kuadrilla hartatik Manu eta Jose Andres Zabala geratzen dira bakarrik; eurekin batera, besteen seme-alabek osatzen dute elkarte. Otsaileko Batzarrak afaria izaten du lagun.

Beheko argazkia: Aspaldiko bazkideei ateratakoa.



Jatunak



Elkartearen FITXA

Izena: Jatunak

Helbidea: Bista Eder, 3

Sorrera-data: 1975-10-01

Bazkide kopurua: 25

Kuota: 25 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): San Andres eta San Juan bezperak

Urteroko ekitaldiak: Bezpera horiekin batera, urteroko txangoa

BESTELAKOAK

Izenaren nondik-norakoa bazkideen ezaugarritik dator: "Jatea plazera delako eta guztiok sasoi onekoak eta jatunak zirelako eta garelako". Hasierako kuadrilla Kalamua tabernatik pasatzen zen egunero, eta soziedadeko mostradorea ere bertatik hartu zuten.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa.



Kamarroak



Elkartearen FITXA

Izena: Kamarroak

Helbidea: San Juan, 1

Sorrera-data: 1978-11-10

Bazkide kopurua: 36

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): San Gaudenzio

Urteroko ekitaldiak: San Juan bezpera, San Andres eguna, Txistorra Eguna, Urteko Batzar Nagusia

BESTELAKOAK

Bi kuadrillen artean sortutako elkarteak euretako baten izena hartu zuen. Urte askoan "el Día del Pavo" ospatzen zuten: afari orokorra egin eta diskurtsoa eta guzti izaten zen. Urtero Txangoaren Eguna ere izaten zuten, janariarekin batera kultura ere kontuan izaten zutelarik: Bilbo, Donostia eta Errioxa askotan izan ziren helmuga.

Beheko argazkia: Orain dela urte batzuetako urteurren bateko egunekoa.



Kerizpe



Elkartearen FITXA

Izena: Kerizpe

Helbidea: Untzaga Plaza, 3

Sorrera-data: 1948-05-06

Bazkide kopurua: 99, gehi beste 75 ohorezko

Kuota: 500 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): San Andres bezpera (bazkideak omentzeko) eta San Andres eguna (ohorezko bazkideak omentzeko)

Urteroko ekitaldiak: Gaztañerre Eguna

BESTELAKOAK

Hasieran Kurding Club izena jartzeko asmoa zuten: kurding kurdatik (mozkorraldia) zetorren eta, diktaduraren zentsurak debekatzen zuenez, Kerizpe ipini zioten, horrela "kerizpean edo ezkutatuta" egingo zutelakoan. Arimen egunaren bigarren astelehenean Gaztañerre ospatzen dute. Bazkide gehien duen elkarteak himno berezia du.

Beheko argazkia: 2024koa, orain arteko zuzendaritza eta beste bi kiderekin.



La Perla



Elkartearen FITXA

Izena: La Perla

Helbidea: Amaña, 10

Sorrera-data: 1978

Bazkide kopurua: 32

Kuota: 25 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak: Amañako jaietako jubilatuen bazkaria

BESTELAKOAK

Izenaren nondik norakoa ez dute argi, baina "Donostiarekin gogoratu eta aurrera!" izango zela diote batzuek. Lehenengoak izan ziren emazteei eta andregaeiei bazkariak eskaintzen.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa.



Legarre Gain



Elkartearen FITXA

Izena: Legarre Gain

Helbidea: Legarre Gain, 1

Sorrera-data: 1978-05-18

Bazkide kopurua: 45

Kuota: 35 euro hileru

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak: Batzar Orokorra eta afaria (urtarrilaren hasieran)

BESTELAKOAK

Legarre auzoko kuadrilla batekoek sortutakoa.

Behoko argazkia: Elkartearen sarrera, kanpotik.



KERIZPEKO HIMNO BEREZIA

Untzagako Kerizpe elkar-
teak badu bere himnoa,
letra eta musikarekin. Ezin
uka himno nahiko arraroa
dela, batez ere letra aldetik.
Hona hemen, hitzez-hitz
bertan esaten dena:



Antxunbian txunbian
Fari-faribe
Antxunbian txunbian
Fari-faribe
Antxunbian txunbian
Fari-faribe
Antxunbian faribe

Eliu pun pun
Eliu pun pun

Makafrú txinpun
Txibiri-biri majau
Txibiri-biri txibiri-biri majau
Ostras
txibiri-biri

Majau jamela maskui
Makakafrú makakafrú
makakafrú
Angui angui anguibiri-biri
Anguibiri-biri majau
jau jau jau

Benediti ti ti ti arrapazaitu
Gora Abitxinia
Adis-Abeba
Benichelo soldata la guerra
A combatire
Por la Liberti ti ti ti
Arrapazaitu

*Abesterakoan, bekokian bi
atzapar ipini eta danek zutik
egiten dute kantuan.*

EROSKI center
Bidebarrietako
taldeak
gabon zoriontsuak
opa dizkizu

BETIEREKO MAITASUN GABONEI

Supermerkatua
EROSKI center
Bidebarrieta

Lindari



Elkartearen FITXA

Izena: Lindari

Helbidea: Bustinduitarren, 8

Sorrera-data: 2000. urtearen bueltan

Bazkide kopurua: 12

Kuota: 40 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna):

Urteroko ekitaldiak:

BESTELAKOAK

Gure herriko Lindari menditik hartu du izena elkartea.

Behoko argazkia: Lindari mendia.



Ondo Nai



Elkartearen FITXA

Izena: Ondo Nai

Helbidea: Bista Eder, 3

Sorrera-data: 1975-10-15

Bazkide kopurua: 35

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrileko bigarren edo hirugarren barixakua

Urteroko ekitaldiak: Urteko Batzar Orokorra

BESTELAKOAK

Beheko argazkia: 2024koa, elkarteko bazkide batzuekin.



Ospelak



Elkartearen FITXA

Izena: Ospelak

Helbidea: Urki, 29

Sorrera-data: 1977-06-23

Bazkide kopurua: 30

Kuota: 30 euro hileru

Egun berezia (ospakizun eguna): Urtarrilaren bigarren zapatua

Urteroko ekitaldiak: Bazkideen txangoa

BESTELAKOAK

Txaltxa Zelain jokatzeko zuten hiru taldeetakoak izanik, sortzaileek batzarra egin zuten izena aukeratzeko eta, Amiter, Botafumeiro eta Ospelak artean, azken horren alde egin zuten. Ospelak larruazalean agertzen diren gorriune ubel-kolorekoak dira; hotzaldietan azaltzen dira, batez ere ume eta nerabeetan. Urkiko jaietan "Langostino de Oro" garaikurra jaso zuten.

Behoko argazkia: 2022koa, Pasaiara egindako txangoan.



Otarra



Elkartearen FITXA

Izena: Otarra

Helbidea: San Kristobal, 11

Sorrera-data: 1970-04-03

Bazkide kopurua: 44

Kuota: 30 euro hilero

Egun berezia (ospakizun eguna): Martxoaren hirugarren zapatua

Urteroko ekitaldiak: Anaitasunezko urteroko bazkaria eta Urteko Batzar Nagusia

BESTELAKOAK

Lagun kuadrilla bati loteria tokatu zitzaion eta San Kristobal kalean zuten lokala hartu zuten. "Los del Saco" izenez ezagunak, Sako ipini nahi izan zioten elkarteari; baina, beste esanahi bat izan ahal zuelakoan, gobernadore zibilak ez zien laga. Euskerazko otarra antzerakoa zela eta, hori aukeratu zuten.

Beheko argazkia: 1996ko liburutik hartutakoa, sortzaileak lxuan azaltzen direla.



Pantalla



Elkartearen FITXA

Izena: Pantalla

Helbidea: Bista Eder, 1 (sarrera Txirio Kaletik)

Sorrera-data: 1971-10-18

Bazkide kopurua: 33

Kuota: 200 euro urtean

Egun berezia (ospakizun eguna): Maiatzeko lehenengo zapatua

Urteroko ekitaldiak: Urteko Batzarra (urtarrilaren hasieran)

BESTELAKOAK

Elkarteko sortzaileek izen bereko futbol taldean jokatu zuten Txaltxa Zelaiko txapelketan.

Beheko irudia: Elkartean duten koadroarena.



Piztu



Elkartearen FITXA

Izena: Piztu

Helbidea: Arrate Bide, 3

Sorrera-data: 1977ko maiatza

Bazkide kopurua: 28

Kuota: 35 euro hilero

